

Pausoa noiz luzatu

Andoni Egaña

1930: Jacako matxinadaren ondoren, Francok Frai Kandido epaitzen du.

1960: Zarauzko Lanbide Eskolako sortzaile gisa, Francok Eskolari eman dion saria jasotzera doa Frai Kandido

Bi argazki horien artean mugitzen da nobela.

Hernani, Udal Liburutegia
2017 azaroa

Andoni Egaña Makazaga¹ (Zarautz, 1961)

Bertsolaria eta euskal idazlea da. Lau aldiz irabazi du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia (lauak jarraian: 1993, 1997, 2001 eta 2005); beste inork ez du halakorik lortu. Euskal Filologian lizentziaduna. Euskaltzain Urgazlea da.



Bertsolari bezala ezaguna bada ere, telebistarako gidoiak ere idazten ditu; eta esparru desberdinak landu ditu literaturan; baita kazetaritza artikulu ugari ere.

Bertsolari bezala bere lorpenak handiak izan dira. Baita gaiaren inguruan egin dituen ikerketa lanak ere. Bai bertsoaren sorkuntzaren gainean eta baita bertsolaritzaren mugimenduari dagokionez. Gaur egungo bertsolaritzari buruzko teorizazioan aitzindarietako bat da.

Lanak

Narratiba

- *Sokratikoeak ere badute ama ipuin bilduma* (1989, Erein)
- *Pausoa noiz luzatu* (1998, EEF-Alberdania). 1999 Euskadi Literatura Saria.

Saiakera

- *Hogeita bina* (2004, Hariadna)
- *Zozoak beleari* (1997, Alberdania): Jon Sarasuarekin batera

Haur eta gazte literatura

- *Mendian* (2000, Alberdania)
- *Zaudete geldi pixka batean* (1999, Elkar)
- *Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?* (2000, Elkarlanean)

¹Hemendik hartua: [sarbidea 2017-10-10]

https://eu.wikipedia.org/wiki/Andoni_Ega%C3%B1a

Biografia

- *Imanol Urbieta. Luzea da bidea* (2002, Ibaizabal)
- Basarri (1999, Sendoa)

Artikuluak




- Aitaren batean (1990, Elkar)

Beste generoak

- Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak (2001, Bertsozale elkarte) Jon sarasua eta Joxerra Garciarekin batera. Lau hizkuntzatan argitaratu da..

Diskak

- Tximeletak sabelean (1994, Kea). Bertso musikatuak.



Pausoa noiz luzatu

Sinopsia

Jaca, 1930eko abendua. Galán kapitaina eta haren soldaduak Errepublikaren alde matxinatzen dira. Kapitainak larrutik ordainduko du pausoa garaiz aurretik luzatu izana.



Zarautz, 1960. Lanbide Eskolako sortzaile eta zuzendari fraidea Madrila eramango duen autoaren zain dago. Francok Eskolari eman dion saria jasotzera doa, Diktadorearentzako opari susmagarri bat eskuetan duela. Inguruko batzuek luzeegi irizten diote egitera doan pausoari; beste batzuek, berriz, laburregi.

Nobela hau ez da bi une historiko horien kronika soil. Baina bada hori ere. Nobelan aurrera, Zarauzko fraidea Galán kapitainaren matxinoetako bat izan zela ikasten dugu. Era berean, ez da Frai Kandidoren biografia, haren erretratu polifonikoa osatzen bada ere.

Jacako matxinoak Errepublikaren alde odola emateko prest dauden heroi tragikoak dira. Frai Kandidok, oster, ez du heroi izan nahi. Badu bere utopia, baina utopia horren alde bizi egin nahi du, eta bizi ahal izateko lagungarri zaion edozeri eta edonori heltzen dio, inguruko esamesak gorabehera.

Kritikak²

Argi argirik ez, itzal itzalik ere ez

Jose Jabier Fernandez

Bertsoen bidez Egañak sonatu egin dituen bere ezaugarriak —umorea, gaietan sakontzeko abilezia, aurriritziak hankaz gora jartzeko grina, distantziarako eta zehar esanerako maisutasuna— bere literatura lanetan ere antzematen ditugu. (...)

Eleberrian, hasieratik bi istorio desberdintzen dira eta biak kontatzen zaizkigu. (...) Bi istorio hauek, hasieran bananduak hasten badira ere, espazioan eta denboran, narrazioak aurrera egiten duen heinean hurbiltzen

²Kritikak osorik irakurtzeko: <http://zubitegia.armiarma.eus/?i=172>

joango dira. Eta ez bakarrik alderdi batzuetan, azalekoetan, baita sakonagoak diren beste batzuetan ere. Hemen dago eleberri honen giltza eta, ondorioz, baita ate garrantzitsua ere.

Pausoa noiz luzatu—eleberriaren izenburuak dioen bezala— gizakiak bizitzan hartu behar duen erabakirik garrantzitsuenetakoa da. Luzatze horretan, beti egon dira argiak eta itzalak, zalantzak eta erabakiak, istiluak eta liskarrak. Azken finean, helburuak edota bitartekoak zein diren garrantzizkoagoak erabakitzea bezala da. Eta Andoni Egañak liburu honetan horretaz guztiaz hitz egiten digu, inoiz ez zuzenean, beti zeharka, ohituta gauzkan estiloarekin eta maisutasunarekin.

Euskaldunon Egunkaria, 1999-02-27

Garairi garaikoa

Felipe Juaristi

Bi une historiko hartu ditu Andoni Egañak eleberria zertzeko. 1930eko abendua bata, non kontatzen baitu Galán kapitainak eta bere mandatupeko soldaduek burutu zuten asaldaldia Jacan. Tartean da labaka sarjentua. Pío Barojak ere aintzat hartu zuen gai hori El cabo de las tormentas nobelan. Ariketa moduan biak irakurtzea gomendutuko nioke irakurtzale orori. Barojak erretrato laburra egiten du Galánena, zehatz eta motz kontatzen du haren matxinada. Ondorio politikoei berebiziko garrantzia ematen dio gainera. Andoni Egañak luze dihardu Galáni eta bere inguruan bildu ziren hitzartuei buruz, eta erretrato sentimentala da gehiago, politikoa baino.(...)

Historia aparta da eta Andoni Egañak darabilen hizkuntza ere bai. Aberatsa hitzetan oso, joria esamoldeetan, dantzaria elkarrizketetan. Irakurriaren plazeraz gain, ondo biribildutako historiarena dakarkigu.

El Diario Vasco, 1998-12-05

Andoni Egaña Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Aitaren batean / Andoni Egaña \(1990\)](#)

Argitaratzailea: Donostia ; Baiona : Elkar, L.G. 1990

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Cuándo alargar el paso / Andoni Egaña; traducción de Gerardo Markuleta \(2008\)](#)

Argitaratzailea: Irún : Alberdania, 2008

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Imanol Urbietta : \[luzea da bidea\] / Andoni Egaña \(2002\)](#)

Argitaratzailea: [Amorebieta-Etxano] : Ibaizabal, L.G. 2002

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Mendian / \[Andoni Egaña ; Antton Olariaga\] \(2000\)](#)

Argitaratzailea: Irun : Alberdania, L. G. 2000

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Nire lehen egunerokoa = My first diary / Andoni Egaña, Mikel Cornejo ; \[ingelesezko moldaketa, Punto.mas S.L.\] \(2002\)](#)

Argitaratzailea: [Bilbao] : Gara, L.G. 2002

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Niri ez zait futbola gustatzen / testua, Andoni Egaña ; marrazkiak, Mikel Valverde \(2012\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2012

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Pausoa noiz luzatu / Andoni Egaña \(1998\)](#)

Argitaratzailea: Irun : Alberdania : Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa, L.G. 1998

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Popo Lorittoa = Popo the Parrot / Andoni Egaña ; \[marrazkiak\] Antton Dueso \(2001\)](#)

Argitaratzailea: [Donostia] : Baigorri : Gara, L.G. 2001

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Tximeletak sabelean \[Grabación sonora\] / Andoni Egaña \(1994\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Disketxea, D. L. 1994

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Urregorritzko kutxa = The little golden box / Andoni Egaña & Eider Eibar ; \[ingelesezko moldaketa Diana Draper\] \(2000\)](#)

Argitaratzailea: [S.I.] : Baigorri : Gara, L.G. 2000

Egaña, Andoni (1961-) 4 Itzuli

[Zaudete geldi pixka batean / Andoni Egaña ; marrazkilaria Antton Olariaga \(2013\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2013

Egaña, Andoni (1961-) 9 Itzuli

[Zozoak beleari / Andoni Egaña, Jon Sarasua \(1998\)](#)

Argitalpena: [2. argit.]

Argitaratzailea: Irún : Alberdania, 1998

Egaña, Andoni 4 Itzuli

[Basarri. Bat-batean / Andoni Egaña ; Marrazkilaria, Iker Aiestaran \(1999\)](#)

Argitaratzailea: Oiartzun : Sendoa, 1999

Egaña, Andoni 4 Itzuli

[Hoqeita bina / Andoni Egaña \(2004\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Hariadna, 2004

Egaña, Andoni 4 Itzuli

[Sokratikoek ere badute ama / Andoni Egaña \(1989\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Erein, 1989

Egaña, Arrate (1963-) 4 Itzuli

[Maritxu / Arrate Egaña ; marrazkiak, Andoni Aio \(2001\)](#)

Argitaratzailea: Donostia : Erein, L.G. 2001

Egaña Ormazabal, Andoni (1947-) 4 Itzuli

[Desabrochando espacios / Andoni Egaña \(2008\)](#)

Argitaratzailea: [Bilbao] : Ediciones Beta III Milenio, [2008]

Egaña Ormazabal, Andoni (1947-) 4 Itzuli

[No me gusta el fútbol, y qué? / texto de Andoni Egaña ; dibujos de Mikel Valverde \(2005\)](#)

Argitaratzailea: Barcelona : Editores asociados, D.L. 2005

Garzia, Joxerra (1953-) 4 Itzuli

[L'art du bertsolarisme : réalité et clés de l'improvisation orale basque / Joxerra Garzia, Jon Sarasua, Andoni](#)

Egaña ; editeur littéraire, Joxerra Garzia (2002)

Argitaratzailea: Donostia : Bertsozale Elkartea ; Andoain : Bertsolari Liburuak, LG 2002

Garzia, Joxerra (1953-) 4 Itzuli

The art of bertsoaritza : improvised Basque verse singing / Joxerra Garzia, Jon Sarasua, Andoni Egaña ; editor, Joxerra Garzia (2001)

Argitaratzailea: Donostia : Bertsozale Elkartea ; Andoain : Bertsolari Liburuak, LG 2001

Garzia, Joxerra (1953-) 4 Itzuli

El arte del bertsoarismo : Realidad y claves de la improvisación oral vasca / Joxerra Garzia, Jon Sarasua, Andoni Egaña (2001)

Argitaratzailea: Donostia : Bertsozale elkartea ; Andoain : Bertsolari liburuak, 2001

Garzia, Joxerra (1953-) 4 Itzuli

Bat-bateko bertsoaritza : gakoak eta azterbideak / Joxerra Garzia, Jon Sarasua, Andoni Egaña ; apailatzailea, Joxerra Garzia (2001)

Argitaratzailea: Donostia : Bertsozale Elkartea ; Andoain : Bertsolari Liburuak, LG 2001

Garzia, Joxerra (1953-)

Euskararen kalitatea, H155 [Bideoa] : eskola, zuzentasunetik egokitasunera ; Bertsoaritzaren oinarri tekniko eta erretorikoak, H156 / Joxerra Garzia & Andoni Egaña (2005)

Argitaratzailea: [Donostia-San Sebastián] : HABE, [2005]

Ipuin bakarrak / aukera eta sarrerak, Xabier Mendiguren (1994)

Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 1994